

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onartzea 11 zenbakiko udal zerga ordenantzaren 4. eranskinaren aldaketa. Eranskinak arautzen du postuak, barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak edo atrakzioak erabilera publikoko lurzoruan instalatzearen bidez udal jabari publikoa modu pribatuan erabiltzeagatik edo haren aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa

Udalbatzak, 2014ko ekainaren 5eko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion postuak, barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak edo atrakzioak erabilera publikoko lurzoruan instalatzearen bidez udal jabari publikoa modu pribatuan erabiltzeagatik edo haren aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa ordaindu beharra arautzen duen 11 zenbakiko udal zerga ordenantzaren 4. eranskinaren aldaketari (14063F212 espedientea), eta 2014ko ekainaren 18ko 68. zenbakiko ALHAOn eman zen argitara. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan. Horrela, bada, jendaurrean jartzen da zerga ordenantza horren testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak (Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duenak) 17.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Hona hemen testua hitzez hitz:

11.4 eranskina. Erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak edo atrakzioak jartzea

Tasa ordaindu beharra aprobetxamendu bereziko udal baimena edo lizentzia ematen denean sortzen da, edo aprobetxamenduari ekiten zaionean, baimenik gabe egiten bada, instalazioak jendearentzako irekita zein itxita egon.

Lurrak okupatzeko baimena jasotzen duten pertsonak edo erakundeek ordaindu behar dute tasa, edo aprobetxamendua egiten dutenek.

Postua edo aprobetxamendua baimenik gabe instalatzea iruzur kalifikazioko arau haustea izango da, bai eta baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea ere, eta zehapena isuna izango da, hain zuzen ere, baimendutakoaren gaineko azalerari edo baimendu gabeko azalerari dagokion tasaren zenbatekoa halako bi.

1. epigrafea. Pertsona fisikoek eta herri onurakotzat jota ez dauden pertsona juridikoek 2,40 euroko tasa ordaindu behar da egunean metro linealeko ondoko gaiak saltzeko edo erakusteko jartzen duten postu bakoitzeko: konfiturak, fruitu lehorrak, izozkiak, barkilloak edo antzekoak; liburuak, aldizkariak eta antzekoak; landareak, loreak eta fruta, barazki eta bestelako elikagaien haziak, naturalak nahiz prestatuak; hegaztiak, arrautzak eta ehizakiak; josteko gaiak, ehunak, arropak, imitaziozko bitxiak, kinkila, burdinak, koadroak, zirtzilkeriak, jostailuak eta denetariko objektuak.

2. epigrafea. Herriko jaietan barrakak, ikuskizunak eta atrakzioak jartzeko lurren emakida lankidetzaz hitzarmen baten bidez egingo da zuzenean legez eratzen den azokariaren elkartearekin eta gutxienez baldintza hauek bete behar dituzte: 275 euroko tasa bakarrik ordainduko da; ferriko elementuek gehieneko prezioa ezarri behar dute atrakzioak erabiltzeko, eta egun jakin batean preziorik handiena 1 euro izango da bidaia bakoitzeko; 1.000 euroko fidantza jarriko da, eta jaiak bukatu baino lehen azokariak abandonatuta uzten duten elementu bakoitzeko 200 euroko isuna ordainduko dute.

Aurreko paragrafoan deskribatzen den lankidetzaren hitzarmena izenpetzen ez bada, adostasunik ez dagoelako, deitutako lizitazio sistematik etorritako tasa ordainduko da, hala badagokio, edo 3. epigrafean jasotako tarifa.

3. epigrafea. Herriko jaietan ez beste egun batzuetan barrakak, ikuskizunak eta atrakzioak jartzeko lurren emakida enkantez, eskaintzak hitzez egingo dira, edo zuzenean egin ahalko da; azken kasu honetan tarifa hauek ordainduko dira:

a) Maiatzaren 1etik urriaren 31ra bitartean baimendutako instalazioek 0,41 euro ordainduko dute eguneko eta hartutako azaleraren metro koadroko, gutxieneko kuota 21,38 euro izanik egunean; bietako handiena ordainduko da instalatutako elementu bakoitzeko (barraka, etxola, ikuskizun edo atrakzio dela).

b) Azaroaren 1etik apirilaren 30era bitartean baimendutako instalazioek 0,21 euro ordainduko dute eguneko eta hartutako azaleraren metro koadroko, gutxieneko kuota 21,38 euro izanik egunean; bietako handiena ordainduko da instalatutako elementu bakoitzeko (barraka, etxola, ikuskizun eta atrakzio dela).

4. epigrafea. Herri onurakotzat edo gizarte interesekotzat jotako pertsona juridikoek 0 euroko tasa ordaindu beharko dute egunean metro linealeko informazioa zabaltzeko instalatzen duten postu bakoitzeko eta ondoko gaiak saltzeko edo erakusteko jartzen duten postu bakoitzeko: konfiturak, fruitu lehorrak, izozkiak, barkilloak edo antzekoak; liburuak, aldizkariak eta antzekoak; landareak, loreak eta fruta, barazki eta bestelako elikagaien haziak, naturalak nahiz prestatuak; hegaztiak, arrautzak eta ehizakiak; josteko gaiak, ehunak, arropak, imitaziozko bitxiak, kinkila, burdinak, koadroak, zirtzilkeriak, jostailuak eta denetariko objektuak. Egoitza Amurrioren dute elkarrekin, azken hamabi hiletan jardunerako udalaren dirulaguntza jaso dutenek, ez dute zertan eduki onartuta herri onurako izatea tasarik ez ordaindu behar izateko, baina ezinbestekoa da lurren okupazioa lotuta egotea dirulaguntzaren xede diren jarduerekin edo beraien finantzaketarekin.

5. epigrafea. Amurrioko Udalak, haren mendeko erakunde autonomoek eta sozietate publikoek antolatzen dituzten erakusketak edo azokak direla 0 euroko tasa ordaindu beharko dute egunean metro linealeko informazioa zabaltzeko instalatzen duten postu bakoitzeko eta ondoko gaiak saltzeko edo erakusteko jartzen duten postu bakoitzeko: konfiturak, fruitu lehorrak, izozkiak, barkilloak edo antzekoak; liburuak, aldizkariak eta antzekoak; landareak, loreak eta fruta, barazki eta bestelako elikagaien haziak, naturalak nahiz prestatuak; hegaztiak, arrautzak eta ehizakiak; josteko gaiak, ehunak, arropak, imitaziozko bitxiak, kinkila, burdinak, koadroak, zirtzilkeriak, jostailuak eta denetariko objektuak.

Azken xedapena

Erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak edo atrakzioak instalatzearen bidez udal jabari publikoan erabilera pribatuen edo aprobetxamendu berezien tasa ordaindu beharra arautzen duen 11.4 eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta indarrean izango da harik eta aldatu edo baliogabetzen den arte.

Amurrio, 2014ko uztailaren 24a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA